



ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



2. Alea 1996ko Urria



**KURTSO BERRIA
IRAKASLE
ESKOLAN**

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714220
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskalategia 792168
 Kultur-Etxea 714042
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 714339
 Liburutegia 714042
 Luis Eceiza 714938
 Almen 714964
 Museo-Eskola
 Ze Barri 714042
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 711223
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088
 Gazte Informazio Bulegoa
 (Arrasate)

**Noiz etorri zinen Eskoriatzara?**

1956ean etorri nintzen. Ordurarte Aretxabaletan bizi nintzen.

Atsegin al duzu zure herria?

Bai, asko asegin dut, oso gustora bizi naiz hemen.

Zein aldaketa egingo zenituzke alkatea bazina?

Ba, eztaikit... Pizsinak askoz lehenago egingo nituzkeen.

Zein da zure lana? Zer egiten duzu egunean zehar?

Trafikoa erregulatzeaz gain, pertsona eta lantegietako notifikazioak eramaten ditut. Oñati, Bergara, Eibar eta abarrera joatea tokatzen zait askotan.

Zenbat denbora daramazu lan horretan?

Aurtengo irailean 25 urte egin ditut lan honetan.

Ertzainekin ondo arreglatzen al zara?

Bai, oso ondo. Ez dut inoiz inolako arazorik izan.

Zein asmo duzu jubilatzeke garaia heltzen zaizunerako?

Bueno presarik ez daukat eta helduko naizen ere ez dakit, baina bestekla lasai lasai herrian bizi.

Zer esango zenioke zu joan ondoren lan hori egingo duenari?

Jendearekin tratuan ahalik eta atseginena izan behar dela, beraiekin bizi behar bait zara egunero. Jendea tratatzen jakin behar da, gainera txisa egiten utzi gabe noski.

Zein da gehien atsegin zaizun jakia?

Ba babak asko atsegin ditut eta *kozidoa*. Lentexak ez hainbeste, jaten ditut baina ...

Tapia eta Leturiak Udazken Kulturalaren bernean emango duten kantaldirako bost sarrera zozketatuko ditugu ondorengo galdera ondo erantzuten duzuenon artean.

Zeintzuk dira abeslari hauen izenak?

- Alfonso Jose eta Godofredo
- Joseba eta Imanol
- Joseba eta Mikel
- Paulino eta Mikel

HAIZEAREN INDARREZ.


Datorren urtean haizearen indarrez energia sortzeko parkea egin leike Elgea mendilerroan. Eusko Jaurlaritzako Energiarako Euskal Erakundeak bi parke aurreikusi ditu Euskal Autonomian jartzeko. Bata Elgea mendika-teakoa eta bestea Araban dagoen Arka-mo mendikateakoa.

37 haize-errota eraikiko dira Elgeako mendikatean, horreitatik 23 Eskoriatzan, 3 Aretxabaletan eta beste 11 Oñatin. 37 errota horreikin 22,2 Mw.eko potentzia sortzea espero da, hau da, 20.000 etxeetara energia elektrikoa erueteko besteko potentzia. Energia hori Iberdrolari salduko zaio eta enpresa hori izango da gero komertzializatuko duena.

Elgeako mendikateko parke eoliko hori Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunen onespina jaso du, Euskadin ez daukagunez energia errekurtsu haundirik, dagoena aprobetxatu egin behar delako. Bestalde, energia garbien aldeko azaldu da Gipuzkoako Diputazioa.

Azken arrazoi hori da, bestalde, ekologia eta ingurugiroa defendatzen dituzten taldeek be defenditu dutena. Energia garbiak erabiltzearen alde daude. Hala ere, zaindu egin behar da zelan eraikitzen den parkea, ingurugiroari eta, bereziki, txoriei eta beste animaliei egiten zaien kaltea ahalik eta txikiena izan dadin.

Parke hori noiz egingo den jakiteko erabakia urte honen amaieran edo datorrenaren hasieran hartuko dute Eusko Jaurlaritzan.


**GATZ FABRIKA
ETA KANGILOI
GURPILA**

Leintz Gatzagan, gatz fabrikaren berrizketarako lanek martxa onean jarraitzen dute aspaldi honetan. Hasiera batean, gatz-museoa izango dena berreraiki zen; geroago, hondakidinetan zegoen Kobredorlas izenekoak jaso zen; eta, azkenik, gatz manantiala eta ur txarrak ateratzeko galeria

garbitu eta kontsolidatu ziren.

Beharbada, gatz fabrikaren berreskurapenean gauzarik deigarriena eta ikusgarriena, gatz-putzutik gatzure ateratzeko erabiliko den kangiloi-gurpila edo egurrezko errubera erraldoia izan liteke.

Hamazazpigarren mendeko asmakizun hau, laster barru, Artabilako errekaostaren indarrak mugiarazita, ikusteko aukera paregabea izango dugu. Ura ateratzeko sistema hau gure lurraldeaz kanpo ezaguna bazen ere, Gatzagan jarri zen modalitate hau Gipuzkoan bakarrenetakoa izan omen zen. Frantzialdeko martxan dauden gurpiletara jo behar izan da, berriki jarriko den gurpilaren proiektua egiteko.



Egurrezko gurpil honek erreka uraren indarra aprobetxatuz, bigarren errubera bat mugiaraziko du. Bigarren hau gatz putzuaren gainaldean jarriko da; leku honetatik, kangiloi-errosarioaren bitartez, ura altzaraziko du.

Gauza ikusgarria izango da 3.60 metroko diametroa duen gurpil erraldoia mugimenduan ikustea. Gurpila errezago mugitzeko, presa txiki bat eraiki izan da, ur kolpea indartsuago eta iraunkorrago etor daion gurpil ikaragarriari.

Poiektoan Arkeolan-ek eta Gatzagako Udalak hartu dute aprte. Elaborazio lana egin duena Jesus Etxezarreta oinatiarra da. Arotz fin honek zituen zailtasun ugari aurre eginez ibili ondoren, gure miresmena merezi du berak egindako lanak.

Gatzagako Udalaren usteak betetzen badira, laster izango dugu egin den lanaren emaitza ikusteko parada. Horrez gain, gatz egiteko lehenagokoez jarraitzen zituzten pausoak ere museo berriaren bidez ikusi ahal izango dira.

Horren zain gaudela, egurrezko erruberaren prototipoa ikusi nahi duenak, azaroaren hamarrean, San Milixanetan izango du aukera.

**Garaje AITZORROTZ**

Gasteiz bidea, z/b. ESKORIATZA

Tfnoa: Tailerra (943) 714294 - Mugikorra 908 579051



Urtero bezala hasi da aurtren ere kurtso berria Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Aurtengoa urte garrantzitsu bat da Irakasle Eskolarentzat. Inoiz baino ikasle gehiago izateaz gain, aurtengoa transizio urte bat izan daiteke; hurrengo ikasturterako edo Mondragon Unibertsitatearen jezarpena espero da, horrek Irakasle Eskolarentzat ekarriko duen aldaketarekin. Zenbait zurrumurru badabilta herrian zehar, Irakasle Eskolak (edo Mondragon Unibertsitateak) San Biatorreko komentua erosiko ote duen edo, bertan Unibertsitate berriak sortuko dituen beharrak bete ahal izateko. Irakasle Eskolako zuzendaria den Jesus Garmendiarekin elkartu gara gai hauei eta sortzen diren beste batzuei buruz berba egiteko.

ZB: Zer moduz 96-97 ikasturtearen hasiera?

Bueno, aurtengoa bi gauza desberdin ikusten ditugu. Alde batetik espezialitate berri bat ematen hasi gara, hezkuntza berezia. Bestalde, lehenengo mailan inoiz baino jende gehiago matrikulatu da eta bi taldetan banatu behar izan ditugu.

ZB: Azken urteetan Irakasle Eskolara etortzen ziren ikasleen kopurua pixkat beherantz zihoala esan daiteke. Nola explikatzen duzue aurtengo ikasle kopuruaren izugarrizko gorakada?

Bi arrazoi desberdin ikusten ditugu batez ere:

Alde batetik, aurtren lehenengo aldiz ematen den hezkuntza berezia espezialitatearen erakargarritasuna. Espezialitate honetan haur gutxituen irakasketa gertatzen da eta oso jende gutxi dauka gaur artean gai honetan titulua.

Bestalde, Irakasle Eskola guztiak gainezka daudela ikus daiteke. Besteetan matrikulatzea nahi zuen jende asko *numerus* klausus-ak direla eta kanpoan geratu da eta azken orduan Eskoriatzara etortzea

IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

HEMEN

ZURE

PUBLIZITATEA

Pub CIPRI 'S

Behin etorri
Eta baietz berriz...

erabaki du. Guk ere lehen bagenituen *numerus klausus*-ak, 140 etortzen ziren eta guk bakarrik 70 onartzen genituen. Baina ikasle kopuruaren beherakada zela eta azken urteetan kendu egin genuen eta aurten sorpresaz harrapatu gaitu.

ZB: Zein ikasketa egin daitezke Eskoriatzako Irakasle Eskolan?

Hiru espezialitate desberdin daude:

- Ingelesa
- Haur eskola
- Hezkuntza Berezia

Aurten matrikulatu direnetatik erdia azken espezialitate hau egitera etorri da.

ZB: Eskoriatza bezalako herri txiki batentzat zein garrantzia dauka bertan Unibertsitate Eskola bat izateak?

Beno berez positiboa da, ezin dio ezer txarrik ekarri. Eskoriatza ezagunagoa egiten du, bai Euskadi bai estatu mailan. Honez gain, nahiz eta Eskola nahiko txikia izan mugimendu bat sortzen du herrian (ikasleen mugimendua, etxebizitzaren alokairuak ...).

Baina beste planu batetatik begiratuta, Irakasle Eskolak herrian izan duen integrazioa aztertzerakoan, defizit historiko bat dagoela esan beharko genuke. Eskola hau askoz aberasgarriagoa izan beharko litzateke Eskoriatzarentzat. Hau pixkat landu beharra dago.

ZB: Zeintzuk dira hurrengo urteetarako planak?

Jakingo duzuen bezala Mondargon Unibertsitatea datorren urtean jarriko da martxan eta gu ere horren barnean gaude. Orain arte ematen diren ikasketez gain, beste berri batzuk emango dira Eskoriatzan. Ikasketa berriek enpresako giza alderdiak landuko dituzte: langileen formakuntza, lidergoa, ... Herri mailako lantegietako buruzagien formakuntza eramango da aurrera. Lizentziatura bat izango da, beraz lau urtetako ikasketak.

ZB: Zer daukazu esateko San Biatorri buruz?

Ikasketa berriek lokal faltaren arazoa ekarri digute eta bi aukera desbedin ari gara aztertzen honi aurre egiteko: San Biator erosi eta bertan ematea ikasketa hauek edo gaur egungo Eskolaren atzekaldean beste edifizio bat jasotzea. Oraindik negoziaketetan ari gara eta ez dugu ezer erabaki.

ZB: Ikasketa berri hauek jende asko ekarriko al dute Eskoriatzara?

Hasera baten kurtso bakoitzeko 50 bat ikasle espero ditugu, beraz lau kurtsoak martxan daudenean 200 bat ikasle izango dira.

ZB: Beste zerbait aipatu nahi bazenu...

Beno ikasketa berri hauekin ikasleentzako etxebizitza defizit bat ere eman daiteke eta alde horretatik ere egoitza baten beharra ere aztertzen ari gara baina oraindik ez dugu inolako erabakirik hartu.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

HEMEN

ZURE

PUBLIZITATEA

Pub ALDATZ

Tfnoa: 714171

Musika ona entzun dezazun

• San Viator eguna izan zen urriaren 21ean. Eskoriatzako viatoristek, barriz, zapatuan ospatu biher izen zuten egun seinalatua, astelehena (21a) lan eguna izan zelako eta bakoitza bere ikastetxera joan biher izan zuelako. Eskoriatzako parrokoa, erresidentziako monjak eta eurak, frailiak egon ziren egin zuten mezan eta ondorengo bazkarian. Hala ere, astelehenean be, viatoristak bakarrik egon baziren be, ospakizuntxoia eginez, San Viator eguna gogoratu egin zuten.

• Intxaurtxuetako kiroldegiko obrek martxa onean darraite. Beheko solairuan igerileku estaldua, sauna, aldagelak, bi frontoi txiki eta garajeak dabilta egiten. Maiatzerako obrok amaituta egotea espero da.

• Lagun ugari bildu ziren urriaren 20an Eskoriatzan, menditik ibilaldi interesgarria egiteko. Egunean, emun zuen izena jendeak eta, 1000 pezeta ordaindu ondoren, goiz osoan zehar ibili ziren gure inguruetaz gozaten. Gainera oso eguraldi polita izan zuten.

• Presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz, hainbat lagun bildu zan 19 eta 20ko asteburuan Udaletxean. LAB sindikatuak egin zuen deialdia. Sindikatu horrek, ekintza honetaz gainera, presoak Euskal Herrira ekartzeko laguntza eskatu diete eskualdeko enpresetan dauden sindikatuetoako ordezkariet eta ordezkari kopuru interesgarriak sinatu du LABek aurkeztutako eskakizuna. Asteburuko itxialdiaren ondoren, domekan Arrasateko manifestaldira joan ziren itxitakoak.

• Zaborrera ataraten diren traste haundiak biltzeko ohar bat zabaldu du Deba Garaiko Mankomunitateak. Orain, traste haundi horreik hilaren lehenengo eguakotxan, ostiralan, bilduko dira goizeko lehen lehenengo orduetan. Hileko lehen eguakotx hori jaieguna izanez gero, zerbitzua bigarren eguakotxan egingo da. Gogoan izan azaroko eta abenduako lehen eguakotxak jaiegunak direla, beraz, traste haundiak azaroaren 8an eta abenduaren 13an bilduko dira.


GAZTE TXOKOR

ESKULANA

3 z.m.

KADIRA - AULKIA




1 Bi jogurt ontzi ebaki itzazu eredian bezala.




Egongela ttikia

Behar duzuna :

- 3 jogurt ontzi ttiki
- kartulina.



2 Bi zatiak itsats bata bestearen gainean.



4 Baso baten laguntzaz borobil bat marraz ezazu kartulinan. Ebaki eta margo ezazu. Gero, ontziaren zolan kola ezazu.

MAHAIA

3 Hirugarren ontziaren ertzeak biribil itzazu haizturrekin (guraizeekin).

5 Oihalezko kuxina itsats dezakezu kadiran.

- San Milixanak ospatuko dira azaroaren 10ean Leintz Gatzagan. Egun horretan, aurreko urteetan bezela, artisau langintzen feria egingo da herriko pilotalekuan. Horrez gainera, gatz-ura jasoteko kangiloi gurpilaren maketa be ikusgai izango da Gatzagako Udaletxean.
- Egin Mus Txapelketaren Eskoriatzako kanporaketak hurrengo larunbatetako batetan jokatu dira. Kartelen bidez leku, egun eta ordu zehatza emango da jakitera. Gogoratu sariak:
 - * Herri mailan: 8000 ptako afari bat lehen bikotearentzat eta 4000 ptakoa bigarrenarentzat.
 - * Sari desberdinak (txapel, Zippo, luma ...) probintzi mailako lehen bikoteentzat.
 - * Sari mundialak (bi kotxe, bidaiak, ...) Euskal Herri mailan aurrean geratzen direnentzat.
 Finala Egin Egunean ospatuko da Bilbon.
- Azaroak 10ean medi irteera antolatu du Eskoriatza Kirol Elkarteko Mendi Sailak Ganbo Aralarrera.

LIBURUTEGIKO LIBURU BERRIAK

Nagusientzako liburuak

El amargo don de la belleza/Terenci Moix
 Los premios / Erich Segal
 El señor Malausséne / Daniel Pennac
 Mal de amores / Ángeles Mastretta
 En busca del unicornio / Juan Eslava Galán
 Las nueve revelaciones / James Redfield
 Negreros / Alberto Vázquez Figueroa
 El hombre que se enamoró de la luna / Tom Spanbauer
 El húsar en el tejado / Jean Giono
 La reina Sol / Christian Jacq
 En Grand Central Station me senté y lloré / Elizabeth Smart

Haur eta gazte literatura

El problema de los miércoles / Laura Nathanson
 La vida hacia atrás / Gudule
 La princesa y los trasgos / George MacDonald
 El tiempo de la noche / William Sloane
 La maravillosa medicina de Jorge / Roald Dahl
 Los cretinos / Roald Dahl
 James y el melocotón gigante / Roald Dahl
 La jirafa, el pelicano y el mono / Roald Dahl;
 Agu Trot / Roald Dahl
 La sopera y el cazo / Michael Ende
 Tomás está enamorado / Jacques Vriens
 Xola eta basurdeak / Bernardo Atxaga
 Dos dragones bailarines / Manuel Alonso Erausquin

UDAZKEN KULTURALA

Urriak 26, larunbata

Antzerkia euskaraz: Txalo Produksioak - "Xagu apia".
 10'30etan frontoian. 800 pta (500 gazte txartelaz)

Urriak 7, osteguna

Hitzaldia: Alimentación y ejercicio en la prevención de la osteoporosis. Valentin zurbano. 6'30etan Kultur Etxean.

Azaroak 9, larunbata

Ipuin kontaketa 3-10 urteko haurrentzat. 4'30etan Eskoriatza, Apotzaga, Bolibar eta Zarimuzten. Bukaeran plazan txokolatada.

Azaroak 10, igandea

Mendi irteera haur eta gazteentzat. Lizarraitz (Erlo mendia) goizeko 8'30etan.

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 11, astelehena

Diapositiba emanaldia: Bidai ezezagun bat. L. Ignacio Gonzalez. 7etan Kultur Etxean.

Azaroak 13, asteazkena

Diapositiba emanaldia: Guatemala. Aitor Kortazar. 7etan Kultur Etxean.

Azaroak 15, ostirala

Tapia eta Leturia Band. 10etan frontoian. 800 pta (aurrez 600, Arrano, Mirentxu eta Aldatzen)

Azaroak 16, larunbata

- Haurrentzat jaialdia Takolo, Pirrutx eta Porrotx-ekin. 5etan frontoian
- Txikiteoa Gardokirekin. 8etan.
- Txiste Afaria Txiskolako bergarrekin. 2500 pta (Axtrokiko bazkide, Euskaldun Berri eta ikasle eta langabetuak 1500).

Azaroak 17, igandea

- Marrazki lehiaketa 6 eta 16 urte bitartekoentzat. 10etan herriko plazan
- Euskal Dantzak. Eskoriatzako "Gorosarri Dantza Taldea", eguadi 1'15etan.

Azaroak 23, larunbata

Musika Eskolako bandaren kontzertua. 9'30etan San Pedro elizan

Azaroak 24, igandea

Erakusketa: Perretxikuak, sandabelarrak, fosilak eta mineralak. Plazan 10,30etatik aurrera



Urriaren 21ean izan zen, baina 1.958. urtean. Marin auzoko Maria Magdalena Deunaren elizan ezkondu ziren **Koldo Zubiete** eta **Pilar Beitia**. Argazkian, Koldo eta Pilarrekin batera aitapuntako eta amapuntako izan ziren **Eusebio Beitia** (Pilarren aita) eta **Miren Zubiete** (Koldoren izeba) azaltzen dira.

75 lagun inguru bildu ziren Jon Etxabe abariak zuzendu zuen ezkontza ospatzera eta, egun berezi horietan izaten den giro polit eta umoretsuari, egun hartan egin zuen eguraldi polita, udazkeneko egun bikaina be gehitu zitzaion.

Meza ostean, lagun arteko bazkari oparoa egin zuten Gatzagako Ventafria jatetxean. Okasioak merezi zuen holako ospakizuna, baina beste ospakizun bat be egin zuten ezkontzarekin batera. Egun hartan **Pilar Beitia** 27 urte bete zituen.

KOMIKIA

